

Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIAK 7 INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO JARRIKO DITU UDAL ERAIKINETAN

Donostiako Gobernuak bihar onartuko du hainbat udal-eraikinetan energia fotovoltaikoko 7 talde instalatzea.

Marisol Garmendia Ekologiako zinegotziak adierazi duenez, “energia-eraginkortasuneko eta ingurumenaren hobekuntzako politketan aurrera egiten jarraitzen dugu, Donostiako Udalaren Klima Aldaketaren estrategiaren esparruan. Eraikin publikoetan, hala nola ikastetxeetan eta udal-bulegoetan, eguzkiaren bidez energia elektrikoa sortzeko 7 instalazio sartu genituen. Helburua da, halaber, energia berriztagarrien bidez autokontsumoa sustatzea eta Udalaren faktura elektrikoa murriztea, berotegi-efektuko gas gutxiago isuriz atmosferara.”

7 instalazio fotovoltaikoak Zuhazti Aldakonea Ikastetxean, Amara Berri Salaberria Ikastetxean, Aiete Ikastetxean, Urgulleko Orixe ikastolan, Igeldo Ikastetxean, Urdaneta eraikinean eta Igarako brigadetan jarriko dira.

Prensa oharra

Nota de prensa



“Instalazio horiekin, urtean 247.698 kWh-ko energia-ekoizpena kalkulatzen da, 50.530 kg CO₂ isurtzea saihestuz eta urteko fakturazio elektrikoan 40.776€ aurreztuz”, Garmendiak nabarmendu duenez.

Plaka berri horiek, datozen 25 urteetan, 1.306.000€ aurreztuko dira, elektrizitatearen prezioa urtean %2 igoko dela kontuan hartuta. Obrak egiteko 6 hilabeteko epea aurreikusi da, eta lizitazio-aurrekontua 330.384,07€-koa da, BEZa barne.